




## BEZEROAK

Lehen esan moduan, gure enpresa Aiztondo bailarako herritarrei zuzenduta dago oraintxe bertan, baina hemendik urte batzuetara enpresa zabaltzea da gure helburua. Adin ezberdinetako pertsonak parte har dezakete, baina batez ere **nerabezaroan** dauden pertsonen bideratuta dago. Hala ere, familiek ere aukera izango dute parte hartzeko, ekintzak egokituz eta haien beharretara moldatuz. Gure ustez, ekintza komunitarioak dibertigarriak izan daitezke, eta era berean, jende berria ezagutzeko aukera paregabea da.



Ekintza horiek, esan bezala publiko guztiarentzat daude irekiak, baina gure enpresaren helburua, batez ere bakarrik sentitzen diren edo norbaitekin egiteko aukera ez duten pertsona horiek, gure ekintzen bidez, plan horiek egitea da, **hainbat pertsona ezagutzeko aukera emanez**. Gaur egungo gizartean, ohikoa da jendeak ekintza desberdinak bakarrik egitea, hala nola mendira edo zinemara joatea. Alde batetik, batzuek bakarrik egitea gustuko dute, eta hori ez dago gaizki; denbora eta espazioa pertsonala beharrezkoak dira pertsona bakoitzaren ongizatea zaintzeko. Bestalde, beste askok ez dute aukera beste pertsona batzuekin denbora edo planak partekatzeko, eta hortan datza gure lana: aukera hori ez duten pertsonen, ekintzen bidez momentu horiek bizitzeko aukera eskaintzea.

Gure ekintzek gazteen arteko elkarriketa eta elkartrukea bultzatzen dute, eta horrela, sentimendu eta esperientzia partekatuak sortzen dira. Ekintza hauekin, giro atsegina eta eroso bat sortu nahi dugu, non jendeak elkar ezagutzeko eta elkarrekin momentu baliotsuak pasatzeko aukera izango duen.

Azken finean, gure lana ez da ekintza jakin batzuk egitea bakarrik, baizik eta jendeari elkarrekin momentu politak bizitzeko aukera eskaintzea. Eguneroko errutinatik irtetea, lagun berriak egitea eta elkarrekin barre egitea, horiek dira gure ekintzen benetako helburuak.

Gure **helburua nagusia**, komunitate bat sortzea da, non denek senti daitezten ongi etorriak. Gure inguruan norbait bakarrik sentitzen bada, oso gaizki pasa dezake, beraz, egoera hori ekiditeko edo bertatik ateratzeko gure enpresa dago. Guztion osasun mentalak garrantzi ikaragarria du, eta gure enpresak hori lantzen eta zaintzen lagunduko die, **harremanen bidez eta elkarlan bati esker**.